

2021eko Batzar Nagusia

Batzar Nagusiko Akta

Eguna: 2021eko maiatzaren 29a

Lekua:

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzen laguntzeko eta bazkideen osasuna zaintzeko, Ohiko Batzar Nagusi hau bideokonferentzia bidez egingo da eta, ondorioz, erabakiak birtualki hartuko dira. Neurri hau, lehenik, Som Energiaren Estatutuek ezarritakoaren babesean hartu dugu eta, subsidiarioki, gazteentzako instalazioen sektoreko ohiz kanpoko neurri ekonomikoak eta kooperatiben sektoreko neurriak ezartzen dituen azaroaren 24ko 47/2020 Lege-dekretuko 9. artikulua, batzar orokorrak deitzeari eta egiteari buruzkoa, xedatzen duenaren arabera, bai eta 7/2021 Lege-dekretuaren 1. kapituluak xedatzen duenaren arabera. Hortaz, Batzar Nagusia Kooperatibaren egoitzan egin dela ulertuko da, Pic de Peguera kaleko 11. zenbakian (17003), GIRONAN.

Maiatzaren 1ean egin zen Errektore Kontseiluaren bilkuran adostu zen Batzar nagusirako proposatuko zen gai-zerrenda eta batzarra 2021eko maiatzaren 11rako deitzea erabaki zen. Bazkideek eskura zuten dagoeneko gai-zerrendari lotutako dokumentazioa eta posta elektronikoz helarazi zitzairen. Webgune korporatiboan ere eskuragarri zegoen: www.somenergia.coop

Hasiera-ordua: 10:00ak - penintsulako ordua (bigarren deialdian egin da).

Amaiera-ordua: 10:00ak - penintsulako ordua.

Bertaratutakoen zerrenda: Ikusi bertaratutakoen zerrenda Akten Liburuan.

Gai-zerrenda:

1. Aktako kontu-hartzaileen hautaketa
2. Ongietorria
3. [INFORMAZIOA] 2020ko Memoria sozial eta ekonomikoa
4. **[BOZKETA] 2020. Urteko kontuak**
5. [INFORMAZIOA] Kontu-hartzaileen txostena
6. **[BOZKETA] 2020ko soberakin kooperatiboaren banaketa**
7. **[BOZKETA] Som Energiaren eta talde bateratuaren urteko kontuen ikuskapena egingo duen enpresaren izendapena**
8. [INFORMAZIOA] 2019an onartutako mozioen jarraipena
9. [INFORMAZIOA] Guztien onerako ekonomiaren balantzearen aplikazioari buruzko txostena [2019ko Batzar Nagusiko mozioa]
10. **[BOZKETA] Mozioek Batzar Nagusira iristeko behar dituzten bozken kopurua (orain 500) murriztea**
11. **[BOZKETA] Autoprodukziorako instalazioak sustatzen laguntzea lobby fiskalaren bidez**
12. **[BOZKETA] Fotovoltaiko flotatzailea aztertzea eta ebaluatzea kooperatiba europarren eskutik**
13. **[BOZKETA] Som Energiaren Talde Teknikoa zentralizatzek duen inpaktua aztertzea eta ebaluatzea**
14. **[BOZKETA] Borondatezko dohainaren erabilerak eta banaketa**
15. [INFORMAZIOA] 2020 Ekintza Planaren itzulera
16. **[BOZKETA] Kapital sozialera egindako borondatezko ekarpenen urteko interes-tasa**
17. **[BOZKETA] Kapital sozialera borondatezko ekarpenak egiteko sortzapen-aldia**
18. **[BOZKETA] Kapital sozialera borondatezko ekarpenak egiteko ereduaren berrespena eta jarraipena**
19. **[BOZKETA] 2021eko elektrizitate-tarifak eta bidesari berriei buruzko informazioa**

20. **[BOZKETA] Estatutu-aldaketak: Webgune korporatiboa egitea**
21. **[BOZKETA] Estatutu-aldaketak: Araudira egokitzea**
22. **[BOZKETA] Estatutu-aldaketak: Xede soziala**
23. **[BOZKETA] Estatutu-aldaketak: Ondasun-komunitateak bazkidetzea**
24. **[BOZKETA] Estatutu-aldaketak: Errektore Kontseiluaren onarpen-akordioak**
25. **[BOZKETA] Estatutu-aldaketak: Barne-erregimenaren araudia gehiengo soilez onartzea**
26. **[BOZKETA] Estatutu-aldaketak: Errektore Kontseiluaren bilera birtualak**
27. **[BOZKETA] Errektore Kontseilua berritzea**
28. **Kontu-hartzaileak berritzea**
29. **[INFORMAZIOA] 2021 Ekintza Plana**
30. **[BOZKETA] 2021eko Aurrekontua onartzea**
31. **Karguak uzten dituzten lagunen agurrak**
32. **Bozketen emaitzak jakinaraztea eta Batzarra ixtea**

1. Aktako kontu-hartzaileen hautaketa

Errektore Kontseiluko presidentea den Albert Banalek 2021eko Batzar Nagusi hau inauguratu du, presidente gisa, eta ongietorria egin dio bazkide-oinarriari. Roger Reixach Errektore Kontseiluko idazkaria ari da batzarreko idazkari.

Presidenteak idatziz eskatutako botoa ordezkatzeko eskaera guztiak onartu ditu eta bi boluntario eskatu ditu batzarreko aktako kontu-hartzaile aritzeko.

Jaume Josa i Pons eta Marta Doncel Garcia boluntario aurkeztu dira.

2. Ongietorria

Presidenteak aipatu du batzarra birtualki egingo dela COVID-19ak eragindako egoera dela medio.

Gogorarazi du batzar nagusia ekitaldi paregabea dela. Izan ere, modu demokratikoan (boto bat bazkide bakoitzeko) Kooperatibarentzat garrantzitsuak diren erabakiak hartzeko gunea

da, boto kualifikaturako informatzeko aukera, eta, aldi berean, Errektore Kontseiluak kontu emateko aukera. Horrez gain, hurrengo urtean datorrena azaltzeko abagunea ematen du.

Presidenteak jardunaldiaren ordutegia azaldu du.

10:00 - 12:00: Errektore Kontseiluak gai-zerrendako puntuak azalduko ditu eta bozketak hasiko dira.

12:00 - 12:30: Bazkideek zalantzak argitzeko eta galderak egiteko tartea.

12:30 - 13:00: Atsedena.

13:00 - 13:45: Berrito ekingo zaio bilkurari helarazitako zalantzei eta galderei erantzuteko.

13:45 - 13:55: Bazkideek bozkatzen amaitzeko azken minutuak.

13:55 - 14:00: Bozketa-panela itxiko da.

14:00: Bozketen emaitzak aurkeztuko dira.

Presidenteak Roger Reixachi eman dio hitza, zeinak bilkura gidatuko baitu.

Roger Reixachek azpimarratu du 130 lagun baino gehiago daudela Batzarrera konektatuta eta bazkideak parte hartzera animatzen ditu, bai irudiak partekatuta, bai sare sozialetan mezuak utzita (#SomAG2021 hashtaga).

Idazkaria informazio- edo bozketa-puntuak azalduko dituzten lagunei hitza ematen hasi da.

2020ko Memoria sozial eta ekonomikoa

Núria Albetek azaldu du puntu hau. Nabarmendu du hamargarren urteurrena izan dela, eta gertatutako guztia azaldu du (aurkezpenean bertan irudien bidez irudikatuta). Bazkide-kopuruaren zenbaketa egin du, horrek berekin dakarren ahalegin kolektiboarekin (borondatezko ekarpenak, Herri Ikasgela, borondatezko dohainaren ekarpena, tokiko taldeen jardura pandemia-egoeran, eta abar).

Komertzializazio-arloan, kontratuen kopuruak gora egin du, eta baita elektrizitate-erabilerak ere.

Azpimarratzekoa da, Almerían, Tahal sorkuntza-instalazioa martxan jarri dela eta, Granadan, Los Llanillos instalazioa eraikitzen hasi dela.

Azkenik, 24 erosketa kolektibo egin dira eta lagun askok eman dute izena, ia 2000 guztira, hasieratik zenbatuta.

Dokumentazioa:

https://drive.google.com/file/d/1XjwdqFIGGB_EiTv-hPiwuSs20WpiRtC6/view

2020. Urteko kontuak

Albert Banalek bozkatuko den puntu hau azaldu du. Seinalatu du dokumentazio guztia batzarraren webgunean eta Parte hartu plataforman dagoela eskuragarri.

Kooperatibaren taldeko enpresen berri eman du. Komertzializazio-arloan nabarmentzekoa da energiaren prezioak gora egin duela. 2020an energiaren prezioa baxua izan zen eta guk energia prezio handiagoan erosi genuen futuroen merkatuan. Kontratuei dagokionez, hazi egin gara, baina aurreko urteetan eta aurreikusitakoa baino erritmo txikiagoan. Bestetik, erabilitako energiari dagokionez, hazi egin gara ere, etxean denbora gehiago pasatzera behartu gaituen COVID-19a dela kausa.

Emitza garbiak aurreko urtekoak baino txikiagoak dira, hazkundera txikiagoa izan delako eta behean xehatzen diren hainbat igoerengatik.

Emitzen koadroa erakutsi du: 6.888.949 euroko ustiapen-marjina gordina.

Azaldu du Talde Teknikoa handitu dela eta soldata-eskala ordenatu egin dela: sarrera garbien % 4,5 da orain, aurreko urtean, aldiz, sarrera garbien % 3,8 izan zen. Une honetan, soldata handienaren eta soldata txikienaren arteko aldea 2,5 da.

Ustiapen-gastuak azaldu ditu. Ez da aldaketa handirik gertatuko aurreko urtearekin alderatuta. Alokairuen partidak behera egin du eta beste partida batzuek gora egin dute. Baina, oro har, egonkorak izan dira. Azpimarratzekoa da berankortasunari aurre egiteko gordetako zatia handitu dela, pandemia dela eta. Sei hilabetetik gorako ez ordaintzeak galeratzat jotzen dira eta horiei aurre egiteko hornidura bat sortu da. Aurten JEZ ordaintzeko hornidura berbera izan da, baita bonu sozialerako bildutako soberako zatia ere, kontzeptu horrengatik etorkizunean ordainketa egin behar izanez gero.

Borondatezko dohainaren kontabilitate-birsailkapena azaldu du, eta adierazi du guztizkoa egonkorra dela aurreko urtearekin alderatuta.

Enpresa bitartekarien finantza-emitza hutsetik hurbil dago.

Amaitzeko, komertzializazio-arloan adierazi du denon artean 3.400.000 euroko baliabide propioak sortu ditugula Kooperatibarentzat eta 681.000 € inguruko mozkin garbia lortu dugula.

Sorkuntzaren atalean, ekoizpenari dagokionez, 2020an ia instalazio guztiek aurreikusitako moduan funtzionatu dute. Diru-sarreraren laburpena erakutsi du. Aurreko urtean baino % 10 gehiago produzitu dugu, baina sarrerak % 13 jaitsi dira, 2020an energiak kostu txikiagoa izan duelako.

Nabarmentzekoa da ordezkari gisa egiten dugun jarduera berria, diru-sarrerak sortzen baititu.

Azkenik, Kooperatibaren jarduera ezberdinen emitza garbiak laburbildu ditu: positiboak dira, baina aurreko urtekoak baino txikiagoak, pandemia dela eta. Talde bateratu gisa 561.395 euroko emitza lortu dugu.

Dokumentazioa:

https://drive.google.com/drive/folders/1UB8GTXwucfA0bRDhSfm_4VTGbCRLbQnl

Kontu-hartzaileen txostena

Kontu-hartzaileei txostenarekin egindako ekarpena eskertu die, puntu interesgarriak baititu. Eta txostena irakurtzea edo kontsultatzea gomendatu du.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1iKiiD7RcPKHiA1XE-_3H8qcYDkMrykmdHq1eCOvoY6o/edit

2020ko soberakin kooperatiboaren banaketa

Soberakin kooperatiboa erreserbarako gordetzea proposatu dugu. Lehenengoa nahitaezko erreserba, bigarrena borondatezkoa eta hirugarrena Kooperatibaren erreserba izateko irizpidea betetzen duena.

Bozkatu den proposamena:

Sortutako 681.548 euroko soberakin kooperatiboa oso-osorik Kooperatibaren erreserben artean honela banatzea proposatzen da:

Nahitaezko erreserba-funtsa: 419.534 €

Kooperatiba finkatzeko, garatzeko eta bermatzeko funtsa, nahitaez bete beharrekoa, uztailaren 9ko Kataluniako Kooperatiben 12/2015 Legearen arabera. Gutxienez, soberakin kooperatibo garbien % 20 eta kooperatibatik kanpoko mozkin garbien % 50 bideratu behar dira.

Borondatezko erreserba-funtsa: 223.187 €

Kooperatiba irabazi-asmorik gabeko sozietatea izaki, Nahitaezko erreserba-funtsetik edo kapitalizazio-erreserbatik kanpo gelditzen den mozkin Borondatezko erreserba-funtserako gordetzen da.

Kapitalizazio-erreserba: 38.826 €

Guk bezala funts propioak modu jarraituan sendotzen dituzten enpresek egin dezaketen erreserba da. Sozietateen gaineko Zergan, zerga-oinarriaren murrizketa dakar.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1B_c5LR56EKJ7nNUR4o7Zt9n2jrmosQA1XgjlO3HNqRA/edit#heading=h.5zi01bvecbqs

Som Energiaren eta talde bateratuaren urteko kontuen ikuskapena egingo duen enpresaren izendapena

Azken urteotan kanpoko enpresa batek egin du Kooperatibaren kontuen kontu-ikuskaritza. 2021., 2022. eta 2023. urteetarako, azken urteotan lan hori egin duen enpresarekin (Auditoria i Control Auditors SLP) jarraitzea proposatu da.

Dokumentazioa:

<https://docs.google.com/document/d/1aqSSV6MoZTqSrwbt5TKUcsH9cXNB4nAqCDZ1pMnROas/edit>

2019an onartutako mozioen jarraipena

Irene Machucak azaldu du gai-zerrendako puntu hau. Ezin izan du Batzarrean parte hartu, arazo pertsonalak direla, eta bideo bat grabatu du.

Gogorarazi du, 2019an, 10 mozio onartu zirela. Mozioen eboluzioaren egoera erreparatu du: gauzatutakoak, aribidean daudenak eta hasteko daudenak.

Nabarmentzeko da PPA akordioen gaineko mozioan oraindik hainbat puntu eztabaidatu behar direla, besteak beste: prest gaude erabiltzen dugun energiarengatik gehiago ordaintzeko? Edo justutzat jotzen dugun energiaren prezioaren erreferentzia propioa izateko?

Normalizazio linguistikorako mozioari dagokiolarik, dokumentua eguneratu da eta, hurrengo urtean, ERP kudeaketa-sistema egokituko da, besteak beste, fakturak lau hizkuntzetan sortzeko.

Eztabaida berriak piztu dira ere tokiko komunitateak Som Energiaren proiektuetan duen parte-hartzearen inguruan, gai horrek Som Energiaren sorkuntza-estrategiarekin lotura estua baitu. Nola bideratu Som Energiaren proiektuak lurraldean?

Guztien onaren balantzeari dagokionean, ekonomia sozial eta solidarioaren balantzearekin azterketa konparatibo bat egitea erabaki da.

2019an onartu ziren baina oraindik hasi gabe dauden eta 2021ean garatuko diren mozioak aipatu dira.

Dokumentazioa:

<https://docs.google.com/presentation/d/1giAaoWhOa6vf2DBxnMm9vqG8icYP5EpXX51g1L6JCq0/edit#slide=id.p1>

Guztien onerako ekonomiaren balantzearen aplikazioari buruzko txostena [2019ko Batzar Nagusiko mozioa]

Irene Machucak azaldu du balantze hau tresna baliotsua dela enpresak hornitzaile zein bezeroekin giza duintasuna, elkartasuna, justizia soziala, jasangarritasun ekologikoa eta demokrazia nola aplikatzen dituen neurtzeko. Txostenak, adierazleen bidez, enpresak helburuak zenbateraino betetzen dituen azaltzen du.

Halaber, kooperatibak software askeko tresna teknologiko baten bidez egiten duen balantze sozialak sozialki arduratsua den enpresa baten sei ezaugarri nagusien (demokrazia, berdintasuna, gizarte-konpromisoa, ingurumen-konpromisoa, lan-kalitatea eta kalitate profesionala) segimendua ebaluatzen du.

Egindako azterketan, nabarmentzekoa da merkataritzakoak ez diren alderdiak baloratu ahal izateko aukera. Guztien onaren balantzea egiteko nazioartean onartutako kanpoko kontu-ikuskaritza bat egin behar da, eta hori ordaindu beharra dago. Bestetik, Som Energia Ekonomia Solidarioaren Sarean sartuta dago, erreferentziako Balantze Soziala egiten du eta sarearen kalitatezko zigiluari eutsi behar dio. Ondorioz, Som Energiak ezin dio balantze soziala egiteari utzi. Hortaz, Guztien onerako ekonomiaren balantzea egingo bagenu ahaleginak bikoiztuko genituzke itzulera esanguratsurik jaso gabe. Horregatik, Guztien onerako ekonomiaren balantzea egitea baztertu da.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1GGoKABa2_8dqAIZ71zbnjOin3Ngru6PdBumN_V1aMTE/edit

Reixachek hitza eman dio Núria Albeti.

Mozioek Batzar Nagusira iristeko behar dituzten bozken kopurua (orain 500) murriztea

Núria Albetek nabarmendu du, aurtengo mozioak bazkide-talde batek landu dituela.

Mozio horietako batek eskatzen du mozioek batzarrean bozkatuko diren gaien zerrendan sartzeko behar dituzten bozken kopurua murriztea.

Gogorarazi du mozio horrek Barne-erregimenaren Araudia aldatzen duela eta, ondorioz, batzarrean errolatutako lagunen botoen 2/3 behar ditu.

Lanaren ondorioak azaldu ditu, hala nola mozioak aurkezteko epea luzatzeko eta bozketak errazteko (epea eta Parte hartu gunearen erabilgarritasuna) aukera.

Gogorarazi du ere mozioek Kooperatibaren baliabideak gastatzen dituztela eta, bozkatzean, hori kontuan hartu behar dugula.

Mozioaren itzulera jasotzeko aukera aipatu du, hurrengo urterako mozioa hobetu ahal izateko.

Positiboki baloratu du mozioak lagun-talde baten lanaren emaitza izatea. Bestetik, adierazi du proposamen bat tokiko talde batetik etortzeak ez duela esan nahi mozioa gai-zerrendan sartzeko baliozkotuta dagoenik, pertsona ezberdinekin landu behar baita.

Proposamena:

Azken Ohiko Batzar Nagusiko parte-hartzaileen eroldaren % 60aren babes edo gehiago lortzen duten lehen 10 mozioak onartzen dira.

Kopuru hori baliozkoa izango da, baldin eta mozioak 300-500 babes lortzen baditu.

Azkenik, 10 moziok baino gehiagok 500 babesetik gora lortzen badituzte, Batzar Nagusiko gai-zerrendan sartuko dira, Kooperatiben Legearen aginduz.

Bazkide guztiek bozkatu eta parte har dezakete.

Dokumentazioa:

<https://docs.google.com/document/d/1tBWgokJ6dLk2GAv4ykEhuvhcUMu-hNpSa06UGWyklaY/edit>

Autoprodukziorako instalazioak sustatzen laguntzea lobby fiskalaren bidez

Mozio hau udaberrian prestatu da. Mozioa babestu nahi da, baina udal-aurrekontuak desorekatu gabe, hau da, baliabide publikoak hainbeste behar ez dituzten lagunei bideratzea saihestuta. Epe luzerako asmoa da baliabideak birbanatzea eta tokiko taldeek une honetan plaka fotovoltaikoak instalatzeko zerga-laguntzarik ematen ez duten udaletan eragina izatea.

Núria Albetek proposatutako puntuak irakurri ditu.

- 1. Kooperatibarentzat (tokiko taldeak, bazkideak) lagungarria izan daitekeen dokumentu bat prestatzea, panel fotovoltaikoekin energia elektrikoa autoproduzitzeko instalazioak dituzten etxebizitzek ordaindu behar dituzten udal-zergen murrizketaren gainean, posizionamendu hauetatik abiatuta:**

1. OHZ murriztea	
Lehen 1.500 Wp-ak	OHZren murrizketa: instalazioaren kostuaren % 20.
1.500 Wp - 3.000 Wp bitartean	OHZren murrizketa: instalazioaren kostuaren % 10.
3.000 Wp - 6.000 Wp	OHZren murrizketa: instalazioaren kostuaren % 5.

2. Som Energiari aholku eskatzea beste leku batzuetan udalekin negoziatzeko egin duten prozesuaren gainean.

3. Araudia eta burokrazia sinplifikatzeko ekintzak.

4. Eguzki-ordenantza municipal bat prestatzeko aldi baterako lantalde bat sortzea.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1SL_6C364FBDJzb5Kg8IEoqs_BAxhw3vETNIGNTiXnQg/edit

Fotovoltaiko flotatzailea aztertzea eta ebaluatzea kooperatiba europarren eskutik

Mozio hau saio batean landu zen. Plaka fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko gehiago ikertu behar da oraindik.

Hauxe erabaki behar da: Kooperatibak mota horretako instalazioen alde on eta txarren azterketa bat egitea eskatu nahi al dio REEScoop federazioari?

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/18Rr6V69t5mKZbQ_zJdpH7ekCx6aNcx1CVPjDJYyQZmg/edit

Som Energiaren Talde Teknikoa zentralizatzeak duen inpaktua aztertzea eta ebaluatzea

Mozio hau hainbat lan-saiotan eta Tokiko taldeen topaketan landu zen. Ondorioztatu da ez dugula ezagutzen Talde Teknikoaren lan egiteko modua. Lan-eskaintzak lurralde

ezberdinetan aurkezten badira, Kooperatibaren ekintzei balioa eransteko izango da (komunitate energetikoak, eta beste).

Núriak proposamenaren puntuak zehaztu ditu:

1. Informazio-atala, bazkideei Talde Teknikoa nola antolatzen den azaltzeko (enfasia kohesio-elementuetan jarrita) eta zeintzuk diren egoitza nagusian lokalizatu daitezkeen edo lokalizatu ezin diren profilak. Orobat, lana malgutzeko neurriak eta kontziliazio-neurriak azalduko ditu.
2. Trantsizio energetiko berriztagarri eta banatuaren erronken aurrean, aldaketa hori lortzeko Som Energiaren balioa nola indartu dezakegun aztertzeko konpromisoa, lurraldean parte hartuz, profesionalizazioaren bidez, egoitza nagusitik deslokalizatutako lanpostuen bidez, tokiko proiektuak garatzeko beharra (bereziki herritarren komunitate energetikoak eta komunitate berriztagarriak) eta proiektuak garatzen diren tokian bertan lanpostuak lokalizatze beharra ahaztu gabe.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1Kcvm9XIUidfd_3QTcao8GBTJ6f1RHXIF1euSuSWUR0/edit

Rogerrek hitza hartu du eta jakinarazi du 150 lagunek baino gehiagok bozkatu dutela (11:30). Gogorarazi du ere zalantzak, kontsultak eta kexak adierazteko unea dela. Gero, Ricard Jorneti eman dio hitza.

Borondatezko dohainaren erabilerak eta banaketa

Proposamen hau Tokiko Taldeen Topaketan landu zen, bai eta Talde Teknikoarekin eta Errektore Kontseiluarekin egindako topaketa birtual batean ere.

Helburua da proposamena urtetik urtera berrikustea eta Kooperatibarentzat baliagarriak diren erabakiak hartzea. Tokiko taldeen dinamizazioa proaktiboa egitea proiektuak garatzeko gauza izan daitezen. Eta azterketa sakonagoa eginda, dohain hori kudeatzeko modua eta borondatezko dohainaren ikuspegi soziala (fundazioa/alde on eta txarrak, eta abar) lantzea.

Ondorioztatu zen ere dohain honek ez lukeela sorkuntza finantzatu beharko; hortaz, eztabaida hori sorkuntza-estrategian sartu beharko da.

Bestetik, azpimarratu beharra dago ezinegona eragin duela komunitate energetikoentzat zer zati gordeko den ez jakiteak.

Ricardek bozkatuko den proposamena irakurri du.

Borondatezko dohaina finantzatzeko jarduerak	Lortu nahi den %
Tokiko taldeen egitura mantentzea	% 30-40
Komunitate energetikoekin lotutako Som Energiaren ekintzei hasierako babesa ematea	% 40-50
Som Energiaren sorkuntza-proiektuen bilaketa finantzatzea	% 15-25
Pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko ekintzak babestea	% 5-15
Energia-efizientzia bultzatzeko ekintzak babestea	% 5-15
Transformazioaren, komunikazioaren, lobbyen, klima-justiziaren, trantsizio energetiko eraldatzailearen, ingurumenaren kontserbazioaren eta nazioarteko lankidetzaren aldeko eta oligopolioaren kontrako ekintzak babestea.	% 5-15

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1db1rY-RUMmgN-1OIMxWnqD_9acxoUVjHMyURtNQDp9k/edit

Rogerrek hitza hartu du eta Bartzelonara eraman gaitu. Bertan Sarak 2020 Ekintza Planaren itzulera egin digu.

2020 Ekintza Planaren itzulera

Sarak azaldu du informazio-puntu hau. Gogorarazi du maiatzean gaudela eta egutegi demokratikoa ez datorrela bat amaitzen ari den urte fiskalarekin, hots, abendu-urtarrilean hasten dena.

Nabarmendu du ere 2020a ez dela urte erraza izan, ez gizartearentzat oro har ez Kooperatibarentzat. Talde Teknikoak lan egiteko modua aldatu behar izan du, bai eta tokiko taldeek eta bazkide guztiek ere.

Zorionez, ekitaldi garrantzitsuenak, hala nola Tokiko taldeen topaketa eta Germinador Social lehiaketa, birtualki egin ahal izan ditugu.

1. Lerro estrategikoa: Gobernantza. Gobernantzari dagokionez, esan beharra dago Ensóko dokumentuan zehaztutako ereduak ezartzen jarraitu dugula. Bokaliak sortzen jarraitzen dugu ere.

2. Lerro estrategikoa: Parte-hartzea. Eredu honetan, Berdintasun Plana garatzeko konpromisoa dago. Lehenik, plana Talde Teknikoaren baitan ezarriko da, gero Kooperatiba osora zabaltzeko asmoz.

3. Lerro estrategikoa: Tokiko taldeak. Urte zaila izan da hau tokiko taldeentzat, kanal birtualetan lan egitera moldatu behar izan delako. Tokiko taldeen diagnostikoa ez da 2021era arte egingo.

4. Lerro estrategikoa: Erritmo iraunkorrean haztea 7. lerroaren mesedetan. Fundazio bat sortzeko, lehenik, goiko puntuan azaldutako lana egin behar da eta lanaren ondorioak aztertu behar dira.

5. Lerro estrategikoa: Aliantzak beste erakunde batzuekin. Ez da ezer planifikatu, baina ekintza zehatzak egin dira. Alde batetik, heziketaren eremuan, bai plataformari bai edukiari dagokionean. Bestetik, autoprodukzioan, eragile estrategikoekin (ingeniaritza-enpresekin, eta abar, erosketak kolektiboan eta beste proiektu jakin batzuen inguruan) aliantzak sortu dira.

6. Lerro estrategikoa: Lobby-estrategia. 2020an ezin izan zen egin, baina 2021ean gauzatuko da.

7. Lerro estrategikoa: Aurrezteak eta efizientzia. Enpresei Infoenergia txostenak bidaltzen hasi gara, eta 2021ean lerro hau indartuko dugu. Gainera, transicioenergetika.cat tresna erabiltzen jarraitzen dugu. REEScoop federazioak bultzatutako bi ekintzetan, hala nola TupperWats eta Fórum (energia-efizientziaren gaineko ezagutza partekatzea), ezin izan dugu aurrera egin eta 2021ean mantenduko ditugu.

Autoprodukzio-arloan, Auzo Komunitateen Gida argitaratu da.

Eta sorkuntza-arloan, estrategia bat eztabaidatzen hasi gara. Lehen gogoeta horren inguruan, komentatu beharra dago arreta proiektuen kalitatean jarri nahi dugula, proiektuak berriztagarriak izatea ezaugarri komuna izango baita.

Heziketa-arloan, nabarmentzekoa da Herri Ikasgela martxan jarri dugula, bazkideentzako zein, oro har, herritarrentzako ikastaroekin.

Komertzializazio-arloan, erosketak-estrategia da aipagarriena, balioztatu beharreko ekintza gisa eta baliozko estrategia gisa jarraipena egiteko. Autoprodukzio-tarifen ereduak ezarri dugu dagoeneko.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1MJdDpsCl8qX_kdaRytN9ks47Fdv_au7YyPIMSvyY0v8/edit

Rogerrek hitza hartu du eta gogorarazi du bozketa irekita dagoela, 200 lagunek baino gehiagok bozkatu dutela eta, Batzarraren lehen orduan, 350 lagun konektatu direla. Ricardi eman dio hitza kapital sozialera borondatezko ekarpenak egiteko proposamenak azal ditzan.

Kapital sozialera egindako borondatezko ekarpenen urteko interes-tasa

Hauxe proposatzen da: kapital sozialera egindako ekarpenengatik % 1 ordaintzea, kontuan hartuta egungo ingurune ekonomikoan interes-tasa oso txikia dela, eta bankuak kobratzen ari direla kontuetan dirua gordetzeagatik. Bestetik, komertzializazio-arloan emaitzak sendoak dira eta ekarpenek ez dute arriskurik ekarriko.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1hd8pOibimgi6J4hjL16tvB8et5tqrifXDe2b_8uy788/edit

Kapital sozialera borondatezko ekarpenak egiteko sortzapen-aldia

Urtero, maiatzean, interes-tasa berritzeko proposamena egiten dugu. Orain arte, interes-tasa aldatu denean, tasa berria urte horretako urtarriletik abendura arte aplikatu da; hortaz, atzeraeraginezko izaera du uneko urteko urtarriletik Batzarra egiten den egunera arte. Batzar honetan proposatu da, hemendik aurrera, urtero, batzarrak interes-tasa bozkatzen duenean, aldaketa uneko urteko ekainetik hurrengo urteko ekainera arte indarrean sartzea. Horiek horrela, hartutako erabakiarekin ados ez daudenek egindako ekarpena ateratzeko aukera izango dute interes-tasa berria indarrean sartu baino lehen. Ricardek adierazi du proposamena zentzuduna dela bazkideen ekonomia zaintzen duelako.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1hd8pOibimgi6J4hjL16tvB8et5tqrifXDe2b_8uy788/edit

Kapital sozialera borondatezko ekarpenak egiteko ereduaren berrespena eta jarraipena

Ricardek 2017ko akordioa irakurri du, non baimena eman zaion Errektore Kontseiluari, 50 milioi euroraino, borondatezko ekarpenak igortzeko. Gogorarazi du bi igorpen egin direla, bata 2017an eta bestea 2019an.

2019an Errektore Kontseiluak onarpen-akordioaren eredu bat onartu zuen, non borondatezko ekarpenen gaineko Batzar nagusiaren eta Estatutuen erabakiak islatu baitziren.

Eredu horrek borondatezko ekarpenen helburua Kooperatibaren xede sozialarekin (energia berriztagarriak ekoiztea eta merkaturatzea) uztartzen zuen.

Argitu da gehieneko ekarpena 100.000 eurokoa dela (Batzarrean aurreikusi bezala), hau da, pertsona bakoitzak borondatezko ekarpenetan metatu dezakeen totala.

Halaber, argitu da interesa ekarpena ordaindu ondorengo egunean sortuko dela.

Posta elektronikoa lehenetsi da jakinarazpen-baliabide gisa.

Pribatutasun-klausula bat eta uko egiteko eskubidea ezarri dira, indarreko legeriari jarraikiz.

Ricardek azaldu du proposamena hau dela: Batzar nagusiaren baimena balioztatzea eta mantentzea borondatezko ekarpenak igortzen jarraitzeko, 50 milioi euroko zenbatekoa agortu arte; eta Errektore Kontseiluak 2019. urtean onartu zuen onarpen-akordioaren eredia berrestea, baita Batzar nagusiak orain arte ezarritako baldintzetan onartutako igorpenak eta onarpen-akordioak ere.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1nLekgiAT_XqvVrJyReW1a-OLNQZ1CIRmmqxIXY7Kvg/edit#

Rogerrek hitza eman dio Assumpta Farrani, eta azken honek Senatuan egindako hitzaldi positiboa gogora ekarri du.

2021eko elektrizitate-tarifak eta bidesari berriei buruzko informazioa

Assumpta Farranek esan du Espluga de Francolín dagoela, Conca de Barberà (Tarragona).

Tarifak zergatik eguneratu diren azaldu du, araudiaren aldaketa dela kausa. Puntu hori aurreko Batzarrean azaldu zen dagoeneko, aldaketa 2019ko azarorako aurreikusita baitzegoen. Azkenean, aldaketa bi egun barru errealitate bihurtuko da eta eragingo digu; beraz, horri buruz hitz egingo dugu.

Gogorarazi du Talde Teknikoa arduratzen dela tarifak diseinatzeaz, baina tarifak Batzar Nagusian erabakitzen ditugun irizpideen, balio nagusien arabera diseinatzen direla. Amaitzeko, Errektore Kontseiluak tarifei egokitzat duen ukitu politikoa ematen die.

Zehaztu du Batzarrean hauxe onartu dela: urtero bi berrikuspen egitea, tarifak EBITDAren arabera ezartzea eta marjina energia-terminoari ez ezik potentzia-marjinari ere aplikatzea.

Assumptak azaldu du adostutako esparru horretatik abiatuta lan egiten jarraitu dugula.

Gogorarazi du, iaz, bigarren seihilekoan, tarifak % 7 jaitsi zirela. Urtarrilean ez ziren eguneratu. Erabaki politikoa izan zen, COVID-19ak eragindako egoera zaila aintzat hartuta. Eta adostu zen apirilean eguneratuko zirela, araudi-aldaketaren aplikazioarekin bat eginez.

Araudia aldatu ez zen arren, tarifak eguneratu ziren. Zergatik eguneratu ziren? Alde batetik, tarifak eguneratzean, Batzarrean adostutakoaren arabera, marjinaren zati bat potentzia-terminoan sartzeko. 2021eko lehen hilabeteetan energiaren prezioa oso altua izan zen Filomenaren erruz, baina are altuagoa izan da apirilean, aurreikusita ez bazegoen ere. Eguneko merkatuan egindako erosketa (eskuarki %20) handiagoa izango da igoera horregatik, eta horrek tarifa eguneratzera bultzatu gaitu.

Programatutako araudi-aldaketa indarrean sartzean, tarifak berriro ere eguneratu ditugu. Tarifak sinplifikatuko dira. Bezeroen % 80ak tarifa bakarra izango du: hiru energia-denboraldi eta bi potentzia-denboraldi kontratatuta. Baina bezero askok genuen jada ordutegi-bereizketa hori; beraz, aldaketa txikia izango da.

Beharbada, tokiko taldeek denboraldien kontua argitzen lagunduko dute. Ordutegiak gogorarazi behar dira. Nola eragingo dute ordainagiritan? Ordutegi-bereizketara pasatzen ez direnek urtean 10-15 € aurreztuko dituzte; bi denboraldi dituztenek, aldiz, ez badute erabilera gauera eta asteburuetara aldatzen, gehiago ordainduko dute.

2.1 tarifen kasuan aldaketa neutroa izango da; gainerako tarifetan ikusteke dago.

Potentzia-marjinari dagokionez, potentzia-terminoaren prezioak behera egin du nahiz eta marjina ezarri, eta horri esker gure kontratuak ez dira asko aldatuko.

Assumptak tarifen prezioak aipatu ditu. Azpimarratu du, P3 denboraldian kontratatutako potentziaren prezioa jaisten dela eta gogorarazi du potentzia bi aldiz alda daitekeela doan.

Autokontsumo-kontratuek gora egin dute. Urtero 150 autokontsumo-alta inguru egiten dira eta, gaur egun, ia 2.800 autokontsumo-kontratu ditugu. Erradiazio handieneko hilabeteetan, energiaren % 1 instalazio horien soberakinetatik dator. Soberakinen prezioa aipatu du. Prezioa futuroen merkatuko erosketarekin bat dator (0,051 € kWh bakoitzeko).

Bonu sozialari dagokionez, orain arte, fakturan, tarifaz gain, bonu sozialerako gordetako zenbatekoa zehaztu da. Batzarrean ere zenbateko bereizi hori ezagutzera ematen jarraitzearen alde bozkatu zen. Baina, arrazoi legalak direla eta, ezin dugu hori egiten jarraitu, eta bonu sozialerako gordetako zatia tarifaren prezioan sartuko da. Halere, esaldi bat gehituko dugu, informazio ondorioetarako, urtean gordetako zenbatekoa jakinarazteko: "2020. urtean, Som Energiak 397.408,41 euro eman ditu bonu soziala finantzatzeko". Konpainia merkaturatzaile guztiak daude behartuta bonu soziala finantzatzera, baina erreferentziako merkaturatzaileek bakarrik eskain dezakete (informazio gehiago).

Tarifa indexatuaren kontua asko landu da, merkatuaren eboluzioari jarraituz, 24 orduetan prezio aldagarria duen tarifa bat eskaini ahal izateko. Tarifa horrekin, arriskua kontratatzen duen pertsonak, eta ez Kooperatibak, hartzen du bere gain.

Oraingo, kontratu pilotuei aplikatu zaie: 6.1 A tarifako bost kontratu, 3.0 A tarifako hiru kontratu eta 2.0 DHA tarifako kontratu bat.

Zergatik ezin izan dugu gehiago egin? Aurten aldaketa asko gertatu direnez gero, taldea oso lanpetuta ibili da eta ezin izan dio horri heldu, baina urtearen amaierarako aurreratzea espero dugu.

Rogerrek hitza eman dio Ero Lugilderi.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/1H_CoQLQz6mW7RUIAR9BI11htAFY1nPmvJqbOURX_Pbig/edit

Estatutuen aldaketak: Webgune korporatiboa egitea

Erok gogorarazi digu Estatutuak direla gure araudia eta, denbora aurrera joan ahala, doitu egin behar ditugula. Batzar honetan, aldaketak taldeka bozkatuko dira.

Proposatutako lehen aldaketa webgune korporatiboa egitea da. Aldaketa 2019. urtean onartu eta erregistratu zen, baina ez da gauzatu. Funtsean, Kooperatiben Legeak iradokitzen dituen hainbat aurreikuspen sartzean datza, adibidez, Estatutuak eta Barne Araudia webgune korporatiboan bazkideen eskura egongo direla.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/14MEhBzOCi7hRHEOF4x_NrZcB6UNyuell6xLEYv4kg1A/edit

Estatutuen aldaketak: Araudira egokitzea

Nagusiki, lengoaia araudia onartu zenetik egin diren legegintza-aldaketetara moldatzean datza (zenbakizko eta nomenklatura-erreferentziak).

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/14MEhBzOCi7hRHEOF4x_NrZcB6UNyuell6xLEYv4kg1A/edit

Estatutuen aldaketak: Xede soziala

Som Energiaren jarduerak definitzen dituen xede soziala ere aldatu behar da. Hainbat jarduera osagarri gehitzea proposatzen dugu, komunitate energetikoen erronkari erantzuteko, adibidez, instalazio berriztagarri propioentzako edo hirugarrenen instalazioentzako aholkularitza, mantentzea, ingeniaritza eta abar. Izan ere, aipatutako instalazioak garatzeko jarduera-mota hori beharrezkoa izango da eta gure Estatutuek, gaur egun, ez dute berariaz jasotzen.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/14MEhBzOCi7hRHEOF4x_NrZcB6UNyuell6xLEYv4kg1A/edit

Estatutuen aldaketak: Ondasun-komunitateak bazkidetza

Estatutuetan, jarduera kooperatibizatuak egiteko interesa duten eta pertsona juridiko edota fisikoak diren bazkideak onartzeko aukera aipatzen dugu, baina ondasun-komunitateak ez dira kategoriatan sartzen. Kooperatiben Legeak, berriz, bazkide gisa jasotzen ditu. Horiek horrela, lengoia zabaltzea proposatzen da ondasun-komunitateak Kooperatiban sartzeko.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/14MEhBzOCi7hRHEOF4x_NrZcB6UNyuell6xLEYv4kg1A/edit

Estatutuen aldaketak: Errektore Kontseiluaren onarpen-akordioak

Helburua da Errektore Kontseiluari maniobra-marjina handiagoa ematea Kooperatibako bazkideek egiten dituzten akordio guztiak onartzeko. Akordioek Batzarraren gidalerroak bete beharko dituzte beti, baina akordioak batzar batetik besterako tartean onartzen direnean, Errektore Kontseiluak borondatezko ekarpenak arautzen dituzten dokumentuen azken bertsioaren xehetasun guztiak onartzeko ahalmena izan behar du, betiere, jakina, Legea, Estatutuak eta Batzarrak ezarritako baldintzak errespetatuta.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/14MEhBzOCi7hRHEOF4x_NrZcB6UNyuell6xLEYv4kg1A/edit

Estatutuen aldaketak: Barne-erregimenaren araudia gehiago soilaz onartzea

Estatutuen testuen arabera, une honetan, Barne-erregimenaren araudia aldatzeko botoen 2/3 behar dira, Estatutuak aldatzeko bezala. Baina, Barne-erregimenaren araudia dokumentu biziagoa denez gero, hura aldatzeko gehiago soilak bakarrik eskatzea proposatzen dugu. Azken finean, arautzen dituen kontuak ez dira Estatutuetaoak bezain garrantzitsuak eta gehiago indartuak ahalbidetzen ez duen garapen dinamikoa behar dute. Nolanahi ere, Legeak eskatzen duen gehiago indartua eskatuko da beti bazkideen lan-baldintzen gainean Barne-erregimenaren araudiak ezartzen dituen baldintzak aldatzeko.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/14MEhBzOCi7hRHEOF4x_NrZcB6UNyuell6xLEYv4kg1A/edit

Estatutuen aldaketak: Errektore Kontseiluaren bilera birtualak

Erok gogorarazi du, une honetan, COVID-19aren gaineko dekretuaren babesean, Errektore Kontseiluak bilera birtualak egiten dituela. Baina, egoera hau amaitzen denean, Errektore Kontseiluaren bilera birtualak Estatutuek babestu beharko dituzte. Horiek horrela, bilera birtualak egin ahal izatea proposatzen da, Errektore Kontseiluko kideak leku ezberdin eta urrunetan bizi direnean CO₂ emisioak eta abar murriztea ahalbidetzen dutelako.

Halaber, gogorarazi du bozketa horiek bloke tematikoen arabera egingo direla, gai-zerrendan zehaztu den legez, bazkide-oinarriak onartu edo baztertu ditzan.

Dokumentazioa:

https://docs.google.com/document/d/14MEhBzOCi7hRHEOF4x_NrZcB6UNyuell6xLEYv4kg1A/edit

Rogerrek gogorarazi du batzarraren webgunean batzarra online jarrai daitekeela, eta Parte hartu gunean informazio guztia (bazkideek aurretiko eztabaidak egin, zalantzak helarazi eta bozketa-panelean sartzeko aukera dute) erabilgarri dagoela.

Gomendatu du bidalitako mezu elektronikoa berrikustea, han baitaude jarraibide guztiak.

Errektore Kontseilua berritzea.

Rogerrek adierazi du Errektore Kontseilua berritzean eztabaida piztu dela aurten generoaren ikuspegitik, hautagai guztiak gizonak baitira. Egoera horrek kezka eragin du bazkideengan, postaz jakinarazi diguten legez, eta baita tokiko taldeetan ere. Zer gertatzen da emakumeekin? Non daude? Zertan egin dugu huts?

Oro har, Kooperatiban, askoz gizon gehiago daude, baina hainbat instantzian (Eskolak, Tokiko taldeen topaketa, eta abar) diskriminazioa saihesten ahalegindu gara. Ulertu behar dugu zergatik gertatzen diren egoera horiek, inklusiboagoak izateko ekintzak abiatu ahal izateko.

Rogerrek gonbidapena luzatu die haien begirada edo iradokizunak helarazi nahi dituzten lagun guztiei, emakumeei batez ere, participa@somenergia.coop helbidera mezu elektronikoko bat bidaltzeko.

Aurten, Errektore Kontseiluan, lau kargu huts daude (hiruk mandatua amaitu dutelako eta batek mandatua amaitu baino lehen dimititu duelako). Rogerrek aurkeztutako hautagaitzak aipatu ditu: Antonio Agut Sole, Borja Barredo Prieto, Albert Clusella Vilaseca, Paco Jofra Carrasco, Jaime Josa i Pons, Jaime Riera Codina eta Enrique Zimmermann Galarza.

Aurten, kargu huts horiek betetzeko pertsona egokienak aukeratuko dira.

Gogorarazi du aukera izan genuela hautagaitza aurkeztu duten lagunak ezagutzeko, eta hori oso baliagarria izan dela.

Kontu-hartzaileak berritzea

Kontu-hartzailetza organoan kargu huts bat dago betetzeko eta bi hautagai ditugu: Malaquias Jimenez Ramirez eta Jesús Salgado Criado.

2021 Ekintza Plana

Sarak azaldu du ekintza bakoitza bokalia jakin batean kokatzen dela, eta ezarpen-egutegi eta adierazle zehatzak dituela.

Plan hau mozioetan proposatu zen: egiteke dauden aurreko urteko ekintzak, urteko erronkak, uneko egoera dela eta.

Komertzializazio-arloan, garrantzitsuenak hauek dira: nola hornitzen gara energiak (gai konplexua da)? Eta adierazleak ezarri behar ditugu estrategiak nola eboluzionatzen duen ikusteko. Beste erronka bat kontingentzia-plana da. Kontratu/bazkide irizpidea. Teknologia eta, COVID-19a dela eta, ez ordaintzeak.

Sorkuntza-arloan, eredia birpentsatzen ari gara eta hainbat gai (finantzaketa, sozietate-eredua eta herritarren partaidetza) jorratzen dituen zabalkundea egingo dugu. 2025erako sorkuntzaren % 30 propioa izatea nahiko genuke.

Autoprodukzio-arloan kontuan hartu behar dugu Komunitate energetikoen arloa transbertsala dela beste esparru batzuekiko. Erosketa kolektiboak, beste finantzaketa-aukera batzuk.

Pobrezia energetikoari dagokionez, oraindik ez gara politikoki posizionatu.

Heziketa-arloan, Herri Ikasgela gunea formalizatu da. 2021ean zehar, edukia sortuko da eta aliantzak ehunduko dira heziketa-proposamena aberasteko.

Gobernantza-arloan, Errektore Kontseiluaren, Gerentzia taldearen eta bokalien arteko koordinazioa hobetu da. Gerentzia-eredu berri bat ezartzea. Kooperatibaren Gobernantza Planaren (aldi baterako lantaldeak-Errektore Kontseilua-Talde Teknikoa) gainean gogoeta egitea, eta Barne Araudia finkatzea.

Parte-hartzean, dibertsitatea (generoari, adinari, mailari eta abarri dagokionean) lortzen saiatuko gara. Beraz, parte-hartzearen diagnostikoa egitea proposatu da.

Tokiko taldeetan, diagnostikoa egin da eta baita itzulera ere. Tokiko taldeak dinamikoak dira, potentzial handia dute eta bete nahi duten rola batera diseinatu behar dugu.

Amaitzeko, gure ekintza-eredua ikusgai egitea, ekimen gehiago sor daitezkeen eta erabakiguneetan (lobby energetikoa) eragina izateko.

Sarak, laburbilduz, azaldu du aurten hainbat ardatz birdefinitu direla, eta ardatz nagusiak aipatu ditu.

Sarak beste alderdi garrantzitsu batzuk azaldu ditu, besteak beste, gerentzia-taldearen bilaketa. Azkenean, elkarriketa dezente egin ondoren, K2K enpresa kontratatzea komeni dela erabaki da. Enpresa horrek autogestioan oinarritutako antolakuntza-eredu bat ezartzen du eta eredu hori Som Energiaren lan-lerroarekin bat dator. Orobat, Fil a l'Agulla kooperatibak aldi baterako laguntzen jarraituko du.

Beste gertaera aipagarri bat da Kooperatibaren etorkizuneko egoitza eraikitzeke lursail bat erosi dugula. Kooperatiba hazi da eta Parc Tecnològic UdG parkeak ez ditu gure beharrak asetzen.

Azkenik, Tandem kooperatiba aditua kontratatu dugu Europako Next Generation laguntzak lantzeko.

Dokumentazioa:

<https://docs.google.com/presentation/d/1dXseBaZkqID6HKXExJiafGi4ahxzfMdEMNsaet1bTaY/edit#slide=id.p1>

Amaitzeko, Rogerrek hitza eman dio Alberti gai-zerrendako azken puntuari heltzeko: 2021eko Aurrekontua.

2021eko aurrekontua onartzea

Aurrekontua 2020ko abenduan prestatu zen. Ekintzak erabakitzen dira (Ekintza Plana) eta gero aurrekontua esleitzen zaie urtea amaitu baino lehen. Baina bizi dugun ziurgabetasunarekin eta energiaren prezioak izan dituen aldaketekin, aurrekontua hein batean aldatu egin da.

Albertek planifikatutakoa erakutsi du eta egon litezkeen aldaketak aipatu ditu.

Aurrekontu hau % 0,7ko EBITDA oinarri hartuta eta, apirilean araudia aldatu arte, tarifak mantenduko zirela pentsatuta prestatu zen. Baina, energiaren kostu handia kontuan hartuta, litekeena da aurrekontua aldatzea.

Gogorarazi du COVID-19aren ondoriozko berankortasunari aurre egiteko hornidurak handitu direla.

Aurten, soldata-gastuei dagokienez, taldeak hazten jarraitzea aurreikusten dugu, 80 kideetik 95 kidera (jardunaldi osoan) pasatzea.

Ustiapen-gastuei erreparatuta, alokairuen, energiaren hornikuntza-kostua (jatorriaren bermeak barne), IT zerbitzarien eta abarren gastuek gora egitea aurreikusten dugu. Lehentasunak aintzat hartuta, Errektore Kontseiluak trantsizio energetikorako hornidura handitu dezake ere.

Hornidurei dagokienez, uste dugu JEZ zergaren hornidura aurten azken aldiz egingo dugula.

Bestetik, ordaintzen ditugun interesen laburpena aurkeztu da. Ez dago aldaketa aipagarririk.

Azkenik, nabarmendu behar da berankortasunari aurre egiteko hornidurak gora egin duela.

Dokumentazioa:

<https://docs.google.com/document/d/1uf5lvADVgvpRnzPnNdT1gDkGMWuf7GhAze3-zMVso4/edit>

12:15ean Rogerrek hitza hartu du eta hurrengo urratsak iragarri ditu. Lehenik, atsedenaldi bat egingo da, bazkideek Parte hartu gunearen bidez zalantzak helaraz ditzaten. 13:00etan zalantzei erantzungo diegu, 13:45ak arte. 13:55ean bozketa itxiko da eta emaitzak 14:00etan jakinaraziko dira.

Bilkura berriro hasi da eta Rogerrek azaldu du zalantzak blokeen arabera argituko direla.

Zalantzei erantzutea. Finantzen blokea

Albert Banalek azaldu du galderak iritsiera-ordenean irakurri eta erantzungo direla.

Lehenengo galdera: zein da irizpide zehatza % 61eko nahitaezko erreserbak ezartzeko arauak % 20ko gutxieneko erreserbak eskatzen dituenen? Ez litzateke onuragarriagoa izango kapitalizazio-erreserben hornidura handitzea sozietateen gaineko zerga murrizteko? Albertek adierazi du neurri horrek, hain zuzen, sozietateen gaineko zerga murriztuko lukeela, baina gehieneko mugak ditugu, eta kapitalizazio-erreserba muga horien arabera hornitzen da.

Bigarren galdera: kontu-ikuskapenari buruzkoa: beste aukera edo enpresa batzuk planteatu dira? Albertek jakinarazi du oraingo enpresa kanpoko kontu-ikuskapena egiteko beharra ezarri zenean kontratatu genuela, orain arte ondo funtzionatu duela eta, horregatik, finantza-taldearekin adostuta, Errektore Kontseiluak kontratua berritzea erabaki duela. Etorrizunari begira, beste proposamen batzuk balora daitezke.

Hirugarren galdera: aurrekontuetan tarifen eta bidesarien aldaketa hobeto jasotzeko eskaera. Albertek azaldu du zaila dela kalkulu hori egitea, Talde Teknikoak azalpen luzeak eman ditzakeela. Urtearen amaieran erosi beharreko energia eta haren kostua estimatu genituen, gero, tarifak apirilera arte mantentzea erabaki genuen eta, azkenean, igo egin ditugu kargu eta bidesarien egitura berria kontuan hartuta, % 0,5-2 bitarteko EBITDAra iristeko. Hori aurreikuspen bat izan zen, baina, araudi-aldaketak errealitatea aldatu du, eta aurreikuspena ez da errealitatearekin bat etorriko.

Laugarren galdera: zer ekarpen energetiko eta ekonomiko jasotzen du Kooperatibak autokontsumo sinplifikatuko kontratuen balantze negatibo garbitik? Egia da soberakin horri esker Som Energiak energia gutxiago erosi behar duela, baina, oraingoz, aurrezki txikia da. Ezin ditugu zifra zehatzak eman, zortzi hilabeteko desfasearekin jasotzen ditugulako. Halere, uste dugu nahiko txikia izango dela.

Azkenik, emaitzaren aurkezpenari dagokionez (dezimal eta zenbakitan aurkeztu da), hobetzeko proposamenak kontuan hartuko dira.

Zalantzei erantzutea

Bloke juridikoa

Rogerrek jakinarazi du ez dela zalantzarik planteatu aurkeztutako proposamenen gainean.

Mozioen blokea

Bazkide batek jakin nahi du nork utziko duen Errektore Kontseilua. Irene Machucak azaldu du Errektore Kontseiluko hiru kideren mandatua amaitu dela: Núria Albet, Roger Reixach eta Ero Lugalde. Bestetik, Rogerrek gogorarazi du Mario Andrések kargua uztea erabaki duela Batzar honetatik aurrerako ondorioarekin. Bi urtez egon da karguan eta mandatua amaitzeko beste bi urte falta zitzaizkion.

Núria Albetek kontu-hartzaileen gaineko galderari erantzun dio: zer egin behar da oraingo hiru kontu-hartzaileetatik 5-7 kontu-hartzailera pasatzeko? Horretarako Estatutuak aldatu behar dira. Mozio bat proposatu behar da eta, Batzarrak mozioa gehiengo indartuz onartzen badu, aldatu egingo dira eta hurrengo urtean kontu-hartzaile berriak sartuko dira.

Pobrezia energetikoari dagokionez, hau da zalantza: nortzuek jasotzen dute laguntza? Posible litzateke bazkideen artean elkartasun-poltsa bat sortzea, mutua estilokoa, larrialdi-egoeretakoa (langabezia, eta abar)? Rogerrek azaldu du kolektibo ezberdinekin lan egiten ari garela, besteak beste, Alianza contra la pobreza energética. Halaber, gure estrategian ekintzak aurreikusi ditugu ere. Amaitzeko, esan beharra dago Errektore Kontseiluaren eta Talde Teknikoaren artean lantalde bat sortu dela ez ordaintzeen gaiari heltzeko eta kasu zehatzak tratatzen lagunduko duen perspektiba zabalagoa izateko. Azaldu beharra dago ere, irailetik aurrera, lantalde hori irekiko dela eta gizarte-oinarriak ideak proposatu ahal izango dituela, denon artean estrategiak garatzeko. Elkartasunaren-poltsa sortzeko proposamena gatazkatsua da; poltsak dei-efektua eragin eta egoera kritikoak sor ditzake.

Núria Albetek adierazi du, borondatezko dohainaren banaketari dagokionez eta bloke bakoitzerako gutxieneko eta gehieneko urkilari dagokionez, hau kontuan hartu behar dela: urkila lehenetsuna zeri ematen zaion jakiteko erreferentzia bat da.

Hurrengo galdera: Som Energia komunitate energetikoa bada, dohaina autoprodukziorako gorde daiteke ere? Núriak erantzun du autoprodukzio kolektiboaren estrategia sorkuntza-eremuan sartzen dela. Komunitate energetikoez ari garenean, borondatezko dohainaren gaineko erabakiei dagokionez, tokiko komunitate energetikoez ari gara (beste lege-figura batzuk dituzte). Helburua da haiek bultzatzea eta haiekin harreman bat ehuntzea.

Azken galdera, lobby fiskalari buruzkoa: Bartzelonan OHZren murrizketa mozioan proposatutakoa baino handiagoa da. Núriak azaldu du mozioa oraindik murrizketa hori ez duten udalerrri guztietarako pentsatu dela, eta hutsetik hasi behar dela lan egiten.

2021 Ekintza Planaren blokea

Galdera: zer egoeran dago lursaila? Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten beste aukera batzuk baloratu dira (esaterako, berregituraketak)? Sarak adierazi du, aukera horretara iristeko hiru urte eman dituztela beste aukera batzuk aztertzen, birgaitzea barne, baina ez dela posible izan. Lursaila hiri-lurzoruan dago eta bost solairura arte eraiki daiteke. Gironarekin ondo komunikatuta dago garraioz eta nahi dugun proiektua (beste erabilera batzuk, eremu partekatua, lan-eredu mistoa, eta abar) erabakitzeko aukera ematen digu. Ingurumen-irizpideak oraindik definitu gabe daude. Partaidetza-prozesu bat deituko da horretarako.

Katalunian 50 Mwh-tik beherako proiektuen (bi instalazio ditugu) luzamendua aplikatzen bada, eta, Batzarrean erabaki bezala, Katalunian sortzea lehenesten badugu, beste ekintza edo alternatibarik aurreikusi al da? Espero dugu luzamenduak aldaketarik ez eragitea gure proiektuetan. Ez dugu proiektu handirik eta ez dugu proiektu handirik egiteko asmorik. Jakitun gara gure proiektuak ez daudela kontsumoa neurri handi batean dagoen tokian, eta, koherenteak izateko, egoera hori aldatzea planteatu dugu.

Beste galdera bat: zein da Som Energiaren jarrera dimentsio handiko edo nekazaritza-lurretan ezarritako proiektu berriztagarrien aurrean? Sarak erantzun du eztabaida publiko bat piztu dela gai horren inguruan eta ikuspegiak anitzak direla. Kooperatiba eztabaidari adi dago eta jarrera harkorra du. Sorkuntza-proiektuak egiteko modua zabaltzen saiatzen gara eta bereizketaren alde apustu egiten dugu jabetzari eta instalazioen kontrolari dagokionean. Hau da, herritarrak ez ditugu bakarrik prozesuaren amaieran deitzen ekarpen ekonomikoa egiteko, hasieratik benetan parte hartzen dute.

Tarifien blokea

Lehenengo galdera: energiaren prezioaren eta konpentsatu beharreko soberakinen prezioaren arteko aldea izugarria da. Assumptak adierazi du hiru aldiz handiagoa dela. Som Energiak energia erosten duenean kontzeptu hori bakarrik erosten du. Bazkide batek energia erosten duenean, berriz, prezioan beste kontzeptu batzuk sartzen dira, hala nola bidesarien kostua, karguak (politikak) eta zergak. Eta hiru kontzeptu horien kostua energiaren prezioaren ia berbera da.

Bigarren galdera: nola ezartzen dira prezioak Generation kWh tarifen? Izan ere bazkideen tarifa arrunteko prezioen oso antzekoak dira. Eta, nola eragiten du horrek ordutegi-tarteetan? Assumptak esan du aurreko erantzunak galdera honi erantzuteko balio duela. Generation kWh tarifen kasuan, deskontua energia-terminoan egiten da. Gainerako kostuak (zergak, bidesariak, karguak, eta abar) ez dira aldatzen. Beste nobedade bat da, lehen, ordutegi-bereizketan, ez zegoela sakonuneko preziorik. Orain, ordea, denboraldi horretako prezioa oso mesedegarria da. Izan ere, asteburuan, energia sakonuneko ordutegian ekoizten da.

Hirugarren galdera: zergatik erosten da elektrizitatearen prezioa altuen dagoen uneetan (apuntamendua)? Som Energiak bazkideak energia kontsumitzen ari diren unean erosi behar du energia merkatuan. Etxeko kontratuek (Kooperatibako kontratuen % 80) energia oso garestia den uneetan kontsumitzen dute; hortaz, parkeak garestiak eta kutsatzaileak

dira eta aukerako prezioak dituzte. Hori da kokka: prezioa altua den uneetan hornitu behar dugu energia. Ez dugu arazo hori futuroen merkatuan, baina energia-kantitate bera erosi behar dugu ordu guztietarako, eta ordu batzuetan ez dugu hainbeste behar.

Eduardek argibide bat gehitu nahi du beste bloke batzuei buruz, zehazki, aurrekontuen aurkezpenari buruz. Aurrekontuak aurreikuspen bat oinarri hartuta prestatzen dira. Aurten, gobernuak zati arautua aldatu du, baina ez da ezer gertatuko gure aurrekontuan, Som Energiak bitartekari-lana egiten baitu. Hortaz, nahiz eta sarrerak igo edo jaitsi, aurrekontuan proportzio berean aldatuko da eta, urtearen amaieran, ez du ondorio praktikorik izango.

Beste xehetasun bat, autokontsumoari dagokionez. Eduardek gogorarazi du autokontsumo sinplifikatuan, fakturan konpentsatu daitekeena gainditzten duen soberakin bat badago, aurrezkoa Kooperatiban geldituko dela. Baina oraingoz ez dakigu zenbateko aurrezkoa izango den. 2020an hasi da modalitate hori. Banatzaileak irakurketak egiteaz arduratzen dira. Irakurketa bat fakturatzen duen konpainia merkaturatzaileei bidaltzen die eta beste bat Red Eléctricari. Azken horrek Espainiako merkaturatzaile guztien batura egiten du eta, gero, merkaturatzaile bakoitzari dagokion zati ekonomikoarekin ixten ditu. Iaz behar bezala funtzionatu izan balu ere, lehen hilabeteetako datuak bakarrik izango genituzke. Baina banatzaileek ez zituztenez sistemak ondo egokitu, ez ditugu Red Eléctricaren datuak. Horiek horrela, ez dakigu zenbatekoa den aurrezkoa.

Rogerrek hitza hartu du eta gogorarazi du, irailean, 2021eko Eskolarekin itzuliko garela. Aurrez aurreko topaketa egiteko gogoia badugu ere, gunea aurrez erreserbatu behar zenez gero eta oraindik murrizketak indarrean zeudenez gero, urrian eta azaroaren hasieran formatu birtualean egitea erabaki genuen. Ildo nagusia "Trantsizio energetiko eraldatzailea" izango da. Argi dago % 100 berriztagarria izango den eredu baterantz goazela, baina gure erroka da eredu hori demokratikoa eta eraldatzailea ere izatea, ekintza kolektiboen bidez.

Hauek izango dira ardatzak: ipar-hego eskala globala, genero-ikuspegia eta, batez ere, lurraldetasuna kontuan hartzen dituen eredu bat, eta trantsizio energetiko horrek kaltetutako pertsonak eta erakundeak zaintzea.

Halere, ez dugu itxi aurrez aurreko topaketa bat egiteko aukera, Kooperatibaren 10. urteurrena ospatzeko azpiegitura txikiagoko ekitaldi bat antolatuta.

Albert Banalek gogorarazi du 13:55ak arte bozkatu daitekeela eta 14:00etan emaitzak jakinaraziko direla. Gero kargua uzten duten lagunei agur esateko unea iritsi dela iragarri du. Azpimarratu du une berezi eta hunkigarria dela, Kooperatiban norberaren erantzukizunak betetzeko ahalegin kolektiboak adiskide bihurtzen gaituelako.

Karguak uzten dituzten lagunen agurrak

Xavier Cots kontu-hartzaileak eskerrak eman ditu elkarlanean emandako urteengatik. Lankideak lagun dituela eta Errektore Kontseiluarekin harreman erraza izan duela berretsiz du. Era berean, Carlesi eta Lorenari eskerrak eman dizkie komunikazioa errazteagatik eta hain zintzoak izateagatik. Etorbizunean arrakasta izatea opa die guztion onerako.

Rogerrek Errektore Kontseiluan kargua uzten duten lagunei eman die hitza.

Ero Lugaldek eskerrak eman nahi dizkie bazkide guztiei (Kooperatiban nola parte hartzen duten alde batera), kontu-hartzaileei eta Talde Teknikoari (kideak lagun baititu) eta, bereziki, Errektore Kontseiluko kideei. Harentzat etapa garrantzitsua izan da bizitakoa, asko ikasi baitu. Karguak pertsona hobea bilakatu duela eta betiko lagunak egin dituela uste du. Maresmeko eta Montsenyko tokiko taldeak eta hitzaldi askotan alboan izan duen Sílvia aipatu ditu bereziki. Eztabaidarik ez baztertzera animatzen gaitu, besteak beste, boterea nork daukan eztabaidatzera. Horren harira, Espainiako ministro izan zen lehen emakumeari, Federica Montsenyri, egindako elkarrizketa bat aipatu du. Haren ustez, boterea partekatzea eta ez biltzea izan behar dugu helburu. Bestalde, adierazi du utopia inoiz ezagutuko ez dugun lekua dela, baina, halere, gero eta aurrerago goazela eta gero eta gehiago urruntzen garela gizarte kapitalistatik.

Núria Albetek esan du hunkituta dagoela. Azken lau urteak oso intentsoak izan dira, erabaki zailak hartu behar izan ditu, baina proiektuak zailtasun guztiak konpentsatzen ditu. Gurekin jarraituko duela esan du. Proiektu honek gauza berriak sor daitezkeela uste duten eta posible egiten duten pertsonak erakartzen ditu. Eskerrak eman dizkie pertsona guztiei, Som Energiaren balio immaterialari, bizitza aldatu diotelako.

Roger Reixachek gogoan du Som Energian Ero Lugalde lagunarekin batera hasi zela. Zalantzarik gabe berriro ere egingo luke. Oso jende zintzoa ezagutzeko aukera eman dio, hitzen orde zemozioak transmititzen dituen. Etapa honetan ikasi du oso garrantzitsua dela jendearekin lan egitea. Errektore Kontseiluko kideek (guztiak aipatu ditu) eta Baix Llobregateko tokiko taldeak egindako lana balioztatu du. Talde Teknikoaren lan egiteko modua, ahalegina eta horizontaltasuna miresten ditu. Bizitza eskaintzen dute soldata eta besteren truke. Eskerrak eman dizkio bereziki Marci. Kooperatiba hazi den arren, beste erakundeengandik eta bazkide-oinarriarengandik ikasten jarraitu nahi dugu. Mundu hobe bat irudikatzeak jarraitzeko oxigenoa ematen digu.

Sara Gutiérrez, Ricard Jornet, Albert Banal eta Irene Machuca ados daude esandakoarekin, oso esperientzia intentsoa da Som Energiako Errektore Kontseiluko kide izatea. Eta are gehiago azken urteotan, erakunde trantsizioa egiten ari denean. Gune ezberdinetan parte hartzen jarraitu ahal izatea espero dute.

Bozketaren emaitzak

Azkenean, Roger Reixachek hitza hartu du emaitzak jakinarazteko:

Erroldako lagunak, guztira:		440			
Galdera	Baiezkoak	Ezezkoak	Zuriak	Abstentzioak	
Ondo iruditzen zaizkizu 2020. urteko kontuak?	334	3	12	91	Onartuta
Iruditzen zaizu soberakin kooperatiboa ondo aplikatu dela?	339	3	13	85	Onartuta
Ondo iruditzen zaizu Som Energia SCCLren eta talde bateratuaren kontuen hurrengo hiru urteetako (2021., 2021., 2022. eta 2023. ekitaldiak) ikuskapena 'Auditoria i Control Auditors SLP' enpresari berriz ere enkargatzea ?	298	7	29	106	Onartuta
Ondo iruditzen zaizu Barne-erregimenaren araudia aldatzea, mozioek Batzar Nagusiko gai-zerrendan sartzeko behar dituzten gutxieneko babesei dagokionean (mozioa gai-zerrendako 10. puntuan estekatutako dokumentuan aurkezten da)?	291	33	27	89	Ukatuta
Ondo iruditzen zaizkizu, lobby fiskalaren bidez, autoprodukziorako instalazioak sustatzen laguntzeko ekintza-proposamenak (mozioa gai-zerrendako 11. puntuan estekatutako dokumentuan aurkezten da)?	293	32	18	97	Onartuta
Ondo iruditzen zaizu, kooperatiba europarren eskutik, fotovoltaiko flotatzailea aztertze eta ebaluatze ko ekintza-proposamena (mozioa gai-zerrendako 12. puntuan estekatutako dokumentuan aurkezten da)?	274	49	20	97	Onartuta
Ondo iruditzen zaizkizu Som Energiaren Talde Teknikoa zentralizatzeak duen inpaktua aztertze ko ekintza-proposamenak (mozioa gai-zerrendako 13. puntuan estekatutako dokumentuan aurkezten da)?	271	53	30	86	Onartuta

Erroldako lagunak, guztira:		440			
Galdera	Baiezkoak	Ezezkoak	Zuriak	Abstentzioak	
Ondo iruditzen zaizu borondatezko dohaina erabiltzeko eta banatzeko proposamena (mozioa gai-zerrendako 14. puntuan estekatutako dokumentuan aurkezten da)?	305	17	27	91	Onartuta
Ondo iruditzen zaizu borondatezko kapital sozialaren interesen sortzapen-aldia aldatzeko proposamena (mozioa gai-zerrendako 16. puntuan estekatutako dokumentuan aurkezten da)?	289	12	33	106	Onartuta
Ondo iruditzen zaizu borondatezko kapital sozialera egindako ekarpenetarako proposatutako urteko interesa (mozioa gai-zerrendako 17. puntuan estekatutako dokumentuan aurkezten da)?	257	44	43	96	Onartuta
Ondo iruditzen zaizu kapital sozialera borondatezko ekarpenak egiteko eredia berresteko eta jarraipena emateko proposamena (mozioa gai-zerrendako 18. puntuan estekatutako dokumentuan aurkezten da)?	310	5	22	103	Onartuta
Ondo iruditzen zaizu webgune korporatiboa garatzeko Estatutuak aldatzea (4., 10., 38., 55. artikulua eta 4. xedapen gehigarria)?	289	7	33	111	Ukatuta
Ondo iruditzen zaizu araudira egokitzeko Estatutuak aldatzea (19., 27., 29. eta 32. artikulua)?	291	3	32	114	Ukatuta
Ondo iruditzen zaizu xede sozialari dagokionean Estatutuak aldatzea (2. artikulua)?	288	4	32	116	Ukatuta
Ondo iruditzen zaizu ondasun-komunitateak bazkideku ahal izateko Estatutuak aldatzea (5. artikulua)?	282	5	35	118	Ukatuta
Ondo iruditzen zaizu Errektore Kontseiluak egindako onarpen-akordioei dagokienean Estatutuak aldatzea (23., 36. eta 44. artikulua)?	269	9	41	121	Ukatuta

Erroldako lagunak, guztira:		440			
Galdera	Baiezkoak	Ezezkoak	Zuriak	Abstentzioak	
Ondo iruditzen zaizu Barne-erregimenaren araudia gehiengo soilez onartzeko Estatutuak aldatzea (40. artikulua)?	260	37	33	110	Ukatuta
Ondo iruditzen zaizu Errektore Kontseiluak bilera birtualak egiteko Estatutuak aldatzea (47. artikulua)?	315	2	12	111	Onartuta
Ondo iruditzen zaizu 2021eko aurrekontua?	288	6	15	131	Onartuta

Hautagaitzak	Boto-kopurua
Errektore Kontseilua	
Antonio Agut Sole	64
Borja Barredo Prieto	290
Albert Clusella Vilaseca	138
Paco Jofra Carrasco	200
Jaume Josa i Pons	171
Jaume Riera Codina	96
Enrique Zimmermann Galarza	138

Hautagaitzak	Boto-kopurua
Kontu-hartzaileak	
Malaquias Jimenez Ramírez	142
Jesús Salgado Criado	166

Rogerrek adierazi du laugarren postuan Enrique Zimmermann Galarza eta Albert Clusella Vilaseca berdinduta daudela.

Berdinketa ohiz kanpoko egoera da eta Estatuetan ez da jasotzen berdinketa hausteko irizpiderik. Bestetik, ezin dira laugarren eta bosgarren hautagaitzak onartu, Estatutuek gehenez bederatzi kide onartzen baitituzte Errektore Kontseiluan. Hortaz, erabaki da, bozketaren emaitzaren arabera, boto gehien jaso dituzten hiru hautagaitzak (Borja Barredo Prieto, Paco Jofra Carrasco eta Jaume Josa i Pons) izendatzea. Egoera zehatz-mehatz aztertuko dugu eta, behar izatekotan, ohiz kanpoko batzar bat deituko dugu berdinketa hausteko.

Kontu-hartzaile aritzeko Jesús Salgado Criadok jaso ditu boto gehien.

Batzarraren itxiera

Albert Banalek eskerrak eman dizkie Claraboiari (streaminga egin duen enpresa), Multisignesi (zeinu-hizkuntzan aldibereko itzulpena egiten duen enpresa) eta Talde Teknikoari, eta, batik bat, jardunaldian parte hartu duten eta bozkatu duten bazkideei. Hurrengo urtera arte.

Bertaratutakoek ez dute beste iruzkinik, iradokizunik edota zalantzarik azaldu, eta presidentek bilkurari amaiera eman dio 14:55ean. Eta nik, Roger Reixachek, Errektore Kontseiluko idazkari gisa, jasota uzten dut bertaratutako pertsona guztien nortasuna egiaztatu dudala (erregistro informatikoa egiaztatu dut, sarbide-kode bikoitzeko edo pasahitz-sistema baten bidez batzarra egiteko erabili dugun plataforma birtualean). Halaber, jasota utzi dut Ohiko Batzar Nagusian parte hartu duten pertsona guztiek, nahi izatekotan, hitzez eta txat bidez parte hartzeko eskubidea baliatu ahal izan dutela.

Sinadurak:

Errektore Kontseiluko presidentea Errektore Kontseiluko idazkaria.

Aktaren edukia irakurri ondoren, dagozkion ondorioak izan ditzan sinatu eta onetsi egiten dut:

Aktako kontu-hartzaileen sinadurak.

Joan Josa i Pons

Marta Doncel Garcia

ERANSKINA: Batzar nagusian parte hartu duten bazkideen zerrenda (izen-abizenak eta bazkide-zenbakia).

1. Errolda inprimatuta Kooperatibaren akten liburuari eransteako.